

IL AZALPEN PROBA • <i>Ipuin bakarrak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–lanean egin duzunari jarraiki–**: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 350 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Egun berri bat hasten dela esaten dutenean (baina akaso ez da egia) abiatu ziren. Ilargia, ezohizko itzal haiek zeramatzen eskupetak ikustean, izutu egin zen, baina gero, bidea irekitzen zuen gurutzeaz erreparaturik, lasaitu zen. Horregatik ez zion ahuntzainari abisurik eman. Pedro, ordea, eskupetak ikusi zituenean ez zen izutu –otsoak akabatzeko desgaraia izan arren– eta gurutzea ikusi zuenean bai, ezein otsori ez baitzaio, sekula, Jainkoaren babesean hiltzeko graziaz eskaini. Ordu erdia duzu jaunarekin bakeak egiteko, Pedro, esan omen zion Juan Zaharrak, doinu mantsoz. Bizi osoa beharko duzue zuek, Juan, eta hasi zaitezte lehenbailehen, erantzun zuela diote.

Eurijasa handia zen eta museorat sartu nintzen, aterik zabalena harakoa zelakotz edo. Han, barnebideetan, noragabetu ondoren, koadro erraldoi bati so geratu nintzen. Pintura koloretsua, marra orok zipristindua, aldiberean izugarri geldoa eta izugarri higikorra: pinpilinpausa amorratuen lorratza bezalakoa.

Jackson Pollock - Number 1, hauxe zen azalpen bakarra. Harriturik negoen begira, emakume bat mintzatu zitzaidanean.

—Ez al da halakoa erotasuna?

IL AZALPEN PROBA • <i>Ipuin bakarrak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori:ek aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 350 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Maletina hartu zuen eta gelatik kanpora irten ziren Martina eta biak, gaixoa barruan utzita. Atea itxi orduko, Martinaren gerria inguratu zuen Martzelok libre zuen besoaz.

—*Goazen* —esan zion, eta Martinaren gelara bideratu ziren.

Aurrerantzean ez zuten gauez ibili beharrik izango. Arratsaldero etorriko zen gaixoari bisita egitera, egun argiz, inoren susmo xarren beldurrik gabe. Luze joango zen gaixoaldia. Gripe txar bat; adin horrekin ondo zaindu beharra zegoen, ezustekorik gerta ez zedin. Hala erantzuten zion emazteari, horrenbestera al zen, ba, gripe hura, galdetzen zionean.

Eta ezustea gertatu zen bigarren astea bete aurretik.

Senarra hilik aurkituko zuen uste osoan hurbiltzen zen Iñaxi goizero haren ohe ertzerara, goizero ohe zabalegiaren buruan begi beti irekiei zerien dir-dir gero eta ahulagoarekin topo egiteko.

Halaxe gertatu zen azaroaren lehen egun hartan ere, senarra aldatzearen eguneroko erritoarekin hastera zihoanean obratu zen goiz hartan.

IL AZALPEN PROBA • <i>Ipuin bakarrak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori:ek aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere obra ezagutzen ez duen irakurle bati azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 350 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Goraino iristeko ordu erdi bateko bidea zegoen. Lau langa eta bi errekatxo gainditu behar izan zituzten. Miren harrিতта zegoen oztopo haiek zein erraz gainditu zituen ikusita. Bazirudien makilak halako indar ezkutua ematen ziola. Hala ere, Imanoli ez zion ezer esango, txorakeriatzat hartuko zuelakoan. Eta, agian, halaxe izango zen; hura ere beste edozein makila bezalakoa zen. Baina aitonak esandakoari fedea zion.

Zaharren esanak aintzakotzat hartu behar direla uste duten horietako bat da Miren. Esaera horiek eskarmentuaren ondorio direla eta aski da sinestea egia bihur daitezen.

.....

—Kontserjeak onartu du gezurretan ibiltze hori?

—Bai. Tipo liberala da, zaharra. Gerran republikanoekin joan zen –erantzun zidan–. Ez da oso aitzakia ona klaustroena, baina oraingoz Otelo lasaitzeko balio du.

Eta ordurarte beretzat “Ernesto” eta niretzat “senarra” zena biontzat “Otelo” bihurtu zen, gure harremanen osasunerako. Benetako konplizitatea ez baita zerbait, legez kanpoko zerbait egite hutsarekin lortzen, ekintza hori klabean izendatzearekin baizik.

IL AZALPEN PROBA • <i>Ipuin bakarrik</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori:ek aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 350 bat hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

“Garai haietan zangoak neureak nizkian, azkarrak eta indartsuak. Haiei zalu eraginez banekien bideak egiten. Haietaz balia, bada, nire bidaiak finean bere burua ukan zian, gauza guztiek ukanen duten bezala. Galtzada eta zubiak zeharkatuz, ilunabar batez jo nian hiriburua, inperioko hiriburua, gau izarratu arantz hartan inguruko aintziren uhinek goraro junpatua, sehaskako sein polit bat iduri. Zazpi milioi zuzik argitzen zizkioaten kaleak eta etxeak, eta goian, gorenean, Zuzi Biribilak bere argi zilarraz bere babes sekretua eskaintzen zioan. Hi gaztea haiz, eta oraindik ikusi gabe hago holako zoragarria, banaka bat hiri korritua haiz hi, baina harekin alderatzekorik bakar bat ere ez oraindik”.

.....

Egun berri bat hasten dela esaten dutenean (baina akaso ez da egia) abiatu ziren. Ilargia, ezohizko itzal haiek zeramatzen eskupetak ikustean, izutu egin zen, baina gero, bidea irekitzen zuen gurutzeaz erreparaturik, lasaitu zen. Horregatik ez zion ahuntzainari abisurik eman. Pedro, ordea, eskupetak ikusi zituenean ez zen izutu –otsoak akabatzeko desgaraia izan arren– eta gurutzea ikusi zuenean bai, ezein otsori ez baitzaio, sekula, Jainkoaren babesean hiltzeko graziaz eskaini. Ordu erdia duzu jaunarekin bakeak egiteko, Pedro, esan omen zion Juan Zaharrak, doinu mantsoz. Bizi osoa beharko duzue zuek, Juan, eta hasi zaitezte lehenbailehen, erantzun zuela diote.

IL AZALPEN PROBA • <i>Ipuin bakarrik</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati horiek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiaturik egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 350 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Gero labur egin zitzaidan eguzkitan igaro genuen denbora, eramandako liburua irakurri ezinik, aldian-aldian, begiak Mirenen edertasunari eransten nizkiola, zeren sikatu eta zerbait epeldu nintzenerako, eguzki bola gorria gure atzeko haitz gailurretan hasi zen osten-tzen eta honekin batera hegazti moko bezalako itzal zorrotz bat senaia berde argitsuan azkar lerratzen eta lerratzen.

Iluntzea ez zen erabatekoa izan, zeruak eta itsasoak urdin-urdin zirauten artean; hala ere, brisara freskoa zebilenez, segituan jantzi eta aldegitia deliberatu genuen.

.....

Eurijasa handia zen eta museorat sartu nintzen, aterik zabalena harakoa zelakotz edo. Han, barnebidetan, noragabetu ondoren, koadro erraldoi bati so geratu nintzen. Pintura koloretsua, marra orok zipristindua, aldiberean izugarri geldoa eta izugarri higikorra: pinpilinpausa amorratuen lorratza bezalako.

Jackson Pollock - Number 1, hauxe zen azalpen bakarra. Harriturik negoen begira, emakume bat mintzatu zitzaidanean.

—Ez al da halakoa erotasuna?

IL AZALPEN PROBA • *Ipuin bakarrik*

Kodea* Taldea

*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

E dukia		/ 2,5
M oldea		/ 2,5
Z uzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori:ek aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Aukeratu zati **BAT** eta **zehaztu** (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 350 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Kontaktetan aurrera nindoan eran, ordea, gehiegi ez ote nintzen luzatzen ari kezkatzen ere hasita nengo. Zertan ari ote zen maisua? Zer aurpegi ote zuen? Asper-asper eginda edukitzea: horixe behar nuen! Nola bizkarra emanaz ari nintzen, denbora zen ikusten ez nuela. Mutikoren baten burutik ere agian pasaturik izango zen honez gero “Hau ez zegok burutik sano! Ezin ote zezakean, bada, motzago egin!?” Baina nondik moztu behar nuen, bada? Historia horrela zen, eta irteten zidan bezala kontatu behar.

Astelehena hor nonbait izango zen. Ez nuke leporik jarriko baina astelehenaizan zela ia seguru nago. Gogoan dut hori, hango drixkak eta erritak hasi aurretik. Edurne nire esku ezkerreko hatzetan erreparatu zelako. “Behatzak hori-hori eginda dauzkazu” esan zidan lehor, gerrara doanak lehen gezi xaxatzailea jaurtitzen duen bezalatsu.

Hatzen kontu horregatik nioen astelehena izango zela, jai biharamunean hori apartak izaten baintuen behatz puntak.